



ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Udal zerbitzu hau herritar guztiengana bideratzen da, oinarritzko premiak ohiko ingurunean estaltzeko mugak dituenari. Banakako zerbitzu batzuk eskaintzen ditu, aldi baterakoak edo iraunkorrak izan daitezkeenak egoera bakoitzaren arabera, pertsona bere ingurunean hobeto integratzen, autonomia funtzionala handitzen eta bizi-kalitatea hobetzen saiatuz.

ELZk jarduera hauek guztiak edo batzuk aurreikusten ditu:

- **Laguntza eta arreta pertsonaleko jarduerak**, erabiltzaileari zuzen-zuzenean ematen zaie, eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko. Higiene pertsonalarekin, jantziekin/oinetakoekin, oinarritzko mugikortasunarekin eta jarduera soziosanitarioekin zerikusia dutenak biltzen ditu.
- **Etxeko laguntzako jarduerak**: Elikadurarekin, erosketarekin, oinetakoak eta norberaren eta etxeko arropa zaintzearekin eta etxebizitza mantentzearekin zerikusia dutenak.
- **Laguntza psikosozialeko oinarritzko jarduerak**: Eremu pertsonalean, familiarrean eta/edo sozialean planteatzen diren egoerak gainditzeko laguntza-prozesuan egindako jarduerak dira:
 1. Jarduera psikosozialak: erabiltzailearen eta bere ingurunearen autonomia ahalik eta gehien indartuko duten oinarritzko trebetasunak, jokabideak eta trebetasunak eskuratzea, berreskuratzea, ikastea eta maneiatu eta sustatzera bideratuak.
 2. Familiari eta/edo zaintzaileei laguntzeko jarduerak: Familiaren eta/edo zaintzaileen lana babestera eta sustatzera bideratuak, erabiltzaileari zainketa helburu dutenak.
 3. Laguntza soziokomunitarioko jarduerak: Erabiltzaileak gizarte eta harreman-bizitzan eta baliabide komunitarioen ezagutzan eta erabileran duen parte-hartzea mantentzera eta sustatzera bideratuak.
 4. Laguntza teknikoko jarduerak: Etxebizitza erabiltzaileen beharretara egokitzeko laguntza teknikoko jarduerak barne hartzen ditu.